

# LABURPENA

Argi dago, haur baten segurtasuna dela guraso batentzat gauzarik garrantzitsuenetako bat. Askotan, segurtasun hori lortzea ez da hain erraza izaten umea txikia denean, izan ere, alde batetik bestera asko mugitzen dira, nondik dabilzan jakin gabe, eta horrek norbait haien gaiean egotea dakar momentu oro. Horregatik, haurrak zaintzen eta segurtasun hori lortzen lagunduko digun gailu bat merkatuan egotea beharrezkoa dela ikusi dugu.

Pultsera bat da, barnealdean txip berezi bat ezarrita duena. Horren eginkizuna, haurra hogeit metro urrunduko zaintzaileari abisua bidaltzea da. Horrela, zaintzaileak haurra begi bistatik galduko balu momentu jakinen batean, pultsera honi esker, eta hark bidalitako abisuari esker, haurra, ezarritako distantzia baino gehiago urrundu dela jakinaraziko dio.